

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Herritarren postontziari lotuta:

- ✓ Ba al duzu auzoan edo hirian gertatzen den zer edo zer dela-eta kexatzeko motiborik? Bada, aurrera! Nahi baduzu, bildu ikaskideekin eta komentatu zein izan litezkeen kexatzeko motiboak eta bururatzen zaizkizun irtenbideak. Ondoren, unitatean zehar landutakoa kontuan hartuta, **idatziozu gutuna hirigintza-zinegotziari zure kexaren berri emateko**. Nahi izanez gero, bidali aurretik, emaiozu irakasleari, begiratu bat eman diezaion.

### Autokarabanen bidaiatzeari lotutako ideiak:

- ✓ Gaiari lotuta dauden **euskarazko blogak arakatu eta eman ikaskideei lortutako informazioaren berri**. Era berean, balora itzazu: zein da erabilgarriena, praktikoena, dibertigarriena? Hona hemen ideia batzuk:
  - [www.furgobidaiak.eus](http://www.furgobidaiak.eus)
  - [www.ehfurgo.wordpress.com](http://www.ehfurgo.wordpress.com)
  - [www.furgoasteburuak.blogspot.com](http://www.furgoasteburuak.blogspot.com)
- ✓ Autokarabanen bidaiatzen duen **auzokide, ezagun edo lagun bat elkarrizketatu eta eman taldeari haren esperientziaren berri**. Jakina, zeu bazara autokarabanazale, aurrera!
- ✓ Sarearen bidez, **autokarabanen egiteko moduko ibilbide bat prestatu eta ikaskideei proposatu**: nondik nora joango gara?, zenbat egun pasatuko ditugu?, non egingo ditugu geldialdiak? ...

### Turismoari lotuta:

- ✓ Egin **bisita Gasteizko turismo-bulegoko langileei**. Horretarako, aldeztu aurretik, elkarrizketa prestatu. Hona hemen galderak egiteko ideia batzuk:
  - Turista asko etortzen al dira gure hirira?
  - Nolako turistak etortzen dira? Zer ezaugarri dituzte?
  - Masifikazio-arazorik al dago? Nolakoa da Gasteizko egoera Donostia, Bilbo, Iruñea eta Baionarekin konparatuta?

